




## LASAITASUN BILA

Jaiotzez kaletarrak izan eta landa  
eremura bizitzera joan diren hainbat  
herritarren esperientziak, Uztarrian 20

## MIELE W 3240 ARROPA GARBIGAILUA ESKAINITZA BEREZIA 899 €

Jatorrizko prezioa 1.260 €



- 1.400 biraketa
- Bukatzeko falta den denbora adierazten du
- 10.000 ordu lan egiteko testatuak (20 urte inguru)
- Ur-detektagailu segurtasun sistema
- Txapa petrifikatua, ez herdoiltzeko
- Erabilera oso errazekoa

# Miele

\* Miele labe, plaka edo kanpaia erosiz gero, MILAR LARRAMENDIK WMF presio-eltzea oparitzen dizu.



WMF

**KALITATEA EROSITA KALITATEA OPARITZEN DUGU!**



**IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN**

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97

## uztarria

Argitaratzailea. Uztarria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

**Telefona eta faxa.** 943 15 03 58

**Posta elektronikoa.**

uztarria@topagunea.com

**Posta kutxa.** 227, Azpeitia

**Lege gordailua.** SS-860/2000

**Zenbakia.** 133.a (2011ko azaroa)

**Urtea.** XII.a (1999ko azaroan sortua)

**Maiztasuna.** Hilabetekaria

**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta

Euskara Zerbitzuak

**Publizitatea.** 685 730 792 /

oalegria@uztarria.com

**Bazkidetza.** 943 15 03 58

**Tirada.** 2.500 ale hilero

**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak

**Azaleko argazkia.** A. Agirrezabala

**Web orrialdea.**

[www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)

**Uztarria herri aldizkariaren**

**laguntzaileak** (erakunde publikoak)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



**Uztarriak**

**Bai Euskarari**

**Oharra.** Uztarria

Komunikazio

Taldeak ez du

bere gain hartzen

herri aldizkariaren

adierazitako

esanen eta

iritzien

erantzukizunik



## 2011KO AZAROKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



04



24



34

## iritzia

**Inkesta.** Jaiegunetan plazatik kotxeak kentzearen alde? **13**

## mamia

**Sokatira.** Nuarbek Europako txapelketan urrezko domina lortu zuela hamar urte bete dira, aurtan **04**

**Klik.** Inaxio Etxeberria, artzain-txakur txapelketetan fin **16**  
**'Eguzkiloare'.** Erika Olaizola eta Ane Arenasen lan berria **24**

## jakiteko

**Iñaki Bergara 'Pio'.** Hari eskainitako biografia argitaratu du Uztarria Komunikazio Taldeak **34**


**Ba aL dakizu** urritik irratia berri bat entzun daitekeela Azpeitian, info7, FMko 107.7 frekuentzian? **Uztarria**

egin zaitez bazkide Uztarrian



943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



**1.157** bazkide **gara** dagoeneko Uztarrian; eskerrik asko denei.

**30** euro dira urtean. 106.400 euroko aurrekontua du Uztarriak 2009. urterako.



**Liburuxka biografikoak.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Amaia Garmendia (Uztarriak liburuxka gehiago aterako ditu)

# Soka, etenda?

Ofizioa ikasi eta aurrera egiteko grinari esker, sokari tiraka 29 urtez etenik gabe aritu zen Nuarbe. Lortutako balentriekin mundu osoan egin da ezagun. 📌 A. Agirrezabala

**S**okatirarako tradizioa betidanik ezagutu izan da Nuarben. “Festetan ohitura izaten zen ezkondu eta solteroek arteko tiraldiren bat egitea”. Hala adierazi du Iñaki Altuna Nuarbe Sokatira taldeko entrenatzaileak, Nuarbe Sokatira Taldearen sorreraz galdetzean.

Ohitura beti egonagatik, taldea orain dela 33 urte sortu zen auzoko gazte batzuk elkartzean. “Azpeitian *Bai Euskarari*-ren ekitaldi

bat antolatu zuten eta parte hartuko genuen eskatu ziguten. Nuarbeko gazteak loretota-rran tabernan elkartzen ginen gauero, kafea hartzeko aitzakian. Han planteatu genuen, pare bat entrenamendu egin, eta orduan



Nuarbe Sokatira Taldea Irlandan, lur gaineko 560 kiloko txapelketan lehia bizian, 1992. urtean. 📌 Patxi Gurrutxaga



1984. urtean pisu txikian, 560 kilokoan, munduko txapelkun izatea lortu zuten, AEBetan. Pisu handian, 640 kilokoan, bigarren geratu eta zilarra eskuratu zuten. Bidaiaetik bueltan, Azpeitiko udaletxean ongiatorria egin zieten. Argazkiko kamioian ailegatu ziren plazara. ■ **Patxi Gurrutxaga**

atera zen lehenengoz gure sokatira taldea jende aurrera. Sasoi hartakoa zen inor ez zen sokatiran aritzetik libratu: Loretotik sei anaia eta koinatua, Arditxotik lau anai, Prontxionetik hiru... Fisikoki oso gogorra zen belaunaldi hura. Sendagileak ere harrituta geratzen ziren tiralariek ematen zituzten parametroekin: 36, 38, 40 pultsazioko jendea zegoen. Pentsatu, arraunaren mundutik ere bat baino gehiago hurbildu zen arraunerako inbitazioa emanez. Inor ez zen joan; sokak zuen lehen-tasuna, zorionez”.

### Lehen txapela Agurainen

Aurrenekoz txapelketa nagusi batean, berriz, 1978ko urrian plazaratu zen, Agurainen jokatu zen Euskal Herriko Txapelketan. Han irabazi zuen bere lehen txapela Nuarbek. “30 bat talde ginen eta bosgarren egin genuen. Hala sailkatzea kristorena izan zen guretzat, izugarri gozatu genuen. Garai hartan, pisu handian aritzen ginen eta beti ondo janda ibiltzen ginen. Zer ez genuen jaten! Kazuelak hartuta joaten ginen, gixatua, txanpaina...”.

Sorrerako urteetan, lur gainean hasi aurretik, entrenamentuak zumatarioan egiten zituzten. “Ez zen toki erokia, zorua leuna zuen eta tarteka kaminoan aritzen ginen, gehiago

heldzen zuelako; baina, hura ere ez zegoen nibelean”. 1980an, Mutrikuko taldeak animatuta, lur gaineko txapelketei ekin zien, eta sistema berri batean pentsatu zutela kontatu du Luis Gurrutxaga taldeko lehendakariak: “Perratutako botak genituen eta takioia lurrean sartzen ikasi behar genuen. Gaur egun, Nuarbeko urtegia dagoen leku horretan Auzokalte baserria zen, eta haren soroan sagar arbolari soka erantsi-eta egiten genituen entrenamenduak. Ofizioa ez genekigun, eta oso xeble ibili ginen. Baziren negar eginda-koak ere. Gero, Mutrikuko taldeak kanpotik maisu bat ekarri zuen eta hark asko erakutsi zigun. Ospea Nuarbek hartu du, baina mutrikuarrak izan dira kanpoko sokatira mota hori Euskal Herrira ekarri dutenak. Gero, nolabait, estilo bat markatu du Nuarbek”.

### Ikasi eta aurrera egiteko grina

Nuarbe Taldearen urrezko aroa “90eko hamarkada” izan zela dio Gurrutxagak: “Aurrenekoz Ingalaterrara joan ginenean, 1980an, ondo ibiltzeko 7-8 urte beharko genituela esan ziguten, eta ez zebiltzan gaizki. 1983an, dagoeneko, Irlandan klub mailan jokatu zen pisu txikiko lehiari aurrenekoz aurkeztu eta garailak izan ginen. 1984an, AEBetan, pisu

txikian, 560 kilokoan, munduko txapelketa irabazi genuen. 640 kilokoan zilarra eskuratu genuen. Izugarria izan zen. Ikasi eta aurrera egiteko kristoren grina sortu zuen lorpen hark. Fisikoki nahiz teknikoki helburua zen taldea optimizatzea. Hala, 1985ean Yimmi Night maisu ingeles bat ekarri genuen erakustera eta sendagilea ere tiralarien jarraipena egiten hasi zen. Gerora, 1993an, errusiar zuzendari batek ‘Bakearen soka’ dokumental grabatu zuen, eta Night-ek hala adierazi zuen: ‘ni erakustera joan nintzen, baina orain guk ikasi behar dugu beraiegandik’. Hori entzutea izugarria da, harro sentitzeakoa”.

1997a ere “izugarritzko urtea” izan zen. Pisu handian Europako txapelketa irabazi zuen bigarren, eta World Games delakoan –joku ez olinpiarren arteko olinpiadak– urrezko domina eskuratu. Balentria guzti haiek lortzeko sekretua “taldearen ikasteko grina” zela dio Altunak: “Dohain fisikoak pisu handia zuen, baina taldearen helburua ikastea izan da beti. Talde oso irekia zen, ofizioa ikasi nahi zuen eta txapelketez gain, urtero bidaia bat egiten genuen ikasteko irrika horrekin”.

Sokatira diziplina “oso gogorreko” kirola dela dio Altunak: “1998a izan zen tiralar gehieneko urtea, 22 lagunekin. Normalean, ▶

►13-16 tiralari genituen; gehiegi ere ez genuen nahi. Tamaina polita da ondo dabiltzan dozena bat eduki eta gazteagoak diren batzuk, ikasten joateko. Hori egon den bitartean ondo ibili gara, baina iturria gastatzen joan da". "Belaunaldi berriein herri txikietako *espíritu gregario* hori galdu da, —dio Gurrutxagak—. Horrez gain, taldera nahigabea eta motibazio falta ekarri zuten nazioarteko federazioetik heldu ziren neurri gogorrek. Parte hartzeko men egin behar zitzairen baldintzei, eta jendea ez zegoen horretarako prest".

Nahiko tiralari lortu ez, eta Nuarbek ez zuen talderik atera 2007ko lur gaineko denboraldian. Entrenatzaileak adierazi duenez, "beherakada nabarmena eman zuen taldeko kideen kopuruak, azken urteetan. Taldearen 30. urteurrena osatu nahi genuen 2007an, baina zazpi lagun geunden, eta bederatziko taldea da gutxienekoa lehiaketan parte hartzeko". "Bai, pena pixkat eduki dugu —dio Gurrutxagak—, 29 urte egin, baina 30 ez. Iaz elkartu ginen, bidaia atsegina baitzegoen Hegoafrikara, baina ez ginen osatu".

Soka eten bazen ere, oroimenean gordeta geratuko dira Nuarbek eskuratutako garaipenak; bidaietatik bueltan, auzotarrengandik jasotako berotasuna; eta "miraririk handiena dena", lortutako balentriei esker, Nuarbe izena mundu osoan ezaguna egin izana.



Turismoa egiteko ere aprobeztatu izan dituzte irteerak. Argazkian, Parisen, Eiffel dorrea atzean dutela. **Patxi Gurrutxaga**



Taldearen sorreraren mende laurdena ospatzeko Nuarbetarren Eguna antolatu zuten, 2002an. Ordura arte irabazitako txapel guztiak, 800, Nuarbeko pazan jarri zituzten zabaldua. **Patxi Gurrutxaga**

## Museoaren etorkizuna kolokan

III Nuarbe Sokatira Taldearen 25. urteurrena ospatzeko Nuarbetarren Eguna antolatu zuten, 2002ko apirilaren 28an. Ekitaldi guztien artean bi izan ziren aipagarrienak, bereziki; taldearen museoaren inaugurazioa eta eguerdian egin zuten bazkari jendetsua.

Hamaika urte pasatu dira museoak ateak ireki zituela, eta hasieran, Beizamako aterpetxera gaua pasatzera joaten ziren umeen bisitekin-eta "boladatxo polita" izan bazuten ere, "pena" dutela adierazi du Luis Gurrutxagak. "Gutxieneko zerbitzua eskaini eta museoari probetxua ateratzeko iaz Udalarekin saiakera bat jo genuen, baina ez zen aurrera atera. Museora doazen guztiek esaten digute, 'baina, hau nolatan duzue horrela? Pena da-ba!'. Halakoak entzunda are-eta pena handiagoa eman eta barruak irakiten dit".

Ez zaio ez, arrazoirik falta. Sokatira ezagutara emateko lan bikaina dute egina: bi gela ditu museoak eta argibide-taulen eta argazkien bidez sokatiraren sorrera eta ibilbidea azaltzen dute. Ordu erdiko iraupena duen **Bakearen soka** dokumentala eta taldeak bere ibilbidean lortutako dominak ere ikusi daitezke. "Ez dut esango 24 orduan egon behar duenik irekita, ez dakit formula egokia zein izan daitekeen, baina erakunderen batek hartu beharko luke haren ardura. Esaterako, Azpeitian badago halako zirkuitu bat, besteak beste, Trenaren Museo edo Loiola ikusteko, eta agian, egokia litzateke Sokatira Taldearen museo ere zirkuitu horren baitan eskaintzea. Sokatiraren mundua ezagutzen ez duenarentzat ezinbesteko pausoa da museo bisitatzea. Eskaintza polita da, eta gure espiritua guzti hori jendeari erakustea eta zabaltea da". ✕



Luis Gurrutxaga elkarteko presidentea, Nuarbe Sokatira taldearen museoan. **III**

# Azpeitiko laborategia?

**H**au da Espainian salmenta gehien duen aldizkariak eginiko adierazpen borobila. *El País* aldizkariak gure herrian jarri zuen bere ikusmira beraien ustez gertatzen ari diren aldaketak ulertzeko modu bezala. Aldaketa sakonak eta denbora gutxian emandakoak, gainera, beraien aburuz. Gure herriko kasua Euskal Herrian gertatu daitekenaren atariko delat aurreikusten du, gainera, artikulua. Egia ote? Nork daki, baina egia da gertatzen ari diren gertaeren garrantzi historikoa ukazina dela.

Aieteko jauregian eginiko bilkura horren adibide garbia da. Nazioarte mailan bake prozesuetan hainbesteko eskarmentua duten politikoak gerturatu ziren gure artera. Hura da irudia, Frankoren Donostiako oporretako etxea izan zena euskal bakegintzarako abiapuntu izan daitekenaren eszenatoki. Historiak horrelako kontraesanak ditu baina bitxikeriak alde batera utzita, oso garrantzitsua da nazioarteko eragileek gure herriko gatazka konpontzeko auzian izan dezaketen papera. Horrela izan zen Ipar Irlanda eta Hegoafrika bezalako lekuetan eta hemengo kasua ez da salbuespena izango.

Gatazka politikoa zela onartzeaz gain bertan bildutakoek bi aldeak pausoak ematera gonbidatu zituzten. ETak berehalako erantzuna eman zuen, ia 50 urteko bere ekintza armatua bukatutzat emanez. Espainiako gobernuak ez du oraindik pauso esanguratsurik eman, baina ziur nago eman beharko dituela. Oso zaila egingo zaio espainiar gobernuari geldirik gelditzea, jarrera gogorra mantenduz. Gutxiago Frantziako gobernuak ere prest azaldu denean pausoak ematera eta nazioarteko komunitatea begira dagoenean Gerra Hotzean jatorria duen azken gatazka politikoa nola konponduko den. Espainiako gobernuak barregarri geldituko litzateke ez baluke inolako pausorik emango.

Bestalde, gatazkaren amaierak eta kudeaketa egokiak bi aldeetako biktimei aitortza



|||||||markel mendizabal|||||

|||Elkarbizitzan eman beharreko pausoak ezinbestekoak dira benetako bakea lortzeko

eskatzen du. Beraiei gure elkartasuna adierazteko modurik onena eta omenaldi onena gatazka gainditu eta etorkizuneko belaunaldiari herri baketsu eta aske bat lortzea litzateke, bere buruaren eta etorkizunaren jabe dena. Elkarbizitzan eman beharreko pausoak beharbada zailagoak izango dira baina aldi berean ezinbestekoak benetako bakea lortzeko. Gizarte guztiaren partehartzea beharrezkoa izango da, biktimei eta bere familiei arduraren pisu guztia utzi gabe.

## Aldaketa politikoa bakarrik?


Hasieran aipatu dudako artikulua gure herria esentzien bailara eta kontserbadore bezala ere definitzen du. Sozialki eta kulturalki betikoa dela dirudi kanpotarrentzat. Ea errealitate hau ere aldatzen dugun denon artean eta Azpeitia gizarte justuago eta solidario baten laborategi bihurtzen dugun.

Asko eskatzen ari naizela pentsatuko du bat baino gehiagok, baina gure herrian maiztzeke hauteskundeetan adierazitako aldaketa

ta goseak ezin du politika arloa

ra bakarrik mugatu eta sozialki ere aldaketak ematea beharrezkoa da. Ea ba benetan Azpeitia gizarte ba-

ketsu, kohesionatu eta justuago baten adibide bihurtzen dugun. Jarri dadila martxan laborategia!!!\*



# Materialen iraultza

**K**uriosoa iruditu zitzaidan, grazia egin zidan eta pentsatu nuen utopia hutsa izango zela: lastozko etxeak, fardoekin eginak eta iraunkorrak. Zer iruditzen?

Mila eragozpen edo akats etorri zitzaizkidan burura: sua, hezetasuna, zomorroak, arratoiak, materialaren ahulezia... Bah! Utopia! Eta hemengoa bezalako lurralde heze-tarako horaindik eta gutxiago.

Ba, Espainia, Frantzia, Alemania, Danimar-ka, eta AEBetan hainbat eraiki dituzte, eta gehienak zutik diraute, batzuek 80 urtetan.

Eraikitzeke erraza dela esan daiteke. Modu oso sinple batean azalduta: oinarri on bat, lastozko fardoak lurretik tarte batera aisla-tuak, elkarren ondoan eta gainean kokatuak etxearen paretak osatuz. Hauek egurrarekin konbinatu daitezke edo beste material batzuekin. Azkenik, teilatu on bat behar du, hegal handiekin, uretik ongi babesteko.

Paretak kare, buztin eta hondarrez eginiko masa batekin ongi estaltzen dira, kapaz kapa eta kitto. Instalazio elektrikoa, ura, berogailua eta erosotasun guztiak barne.

Lastozko etxeena adibide txundigarri bat besterik ez da. Erresuma Batuan adobe-egini-ko 100.000 etxe diraute zutik aspaldidanik.

Gisa honetako eraikuntzekin esfortzua eta lana asko murrizten dira, eta ez etxearen egi-turatzeari dagokionean soilik, baita materia-len transformazioari dagokionean ere.

Beste adibide bat banbuaren da. Gogorra, arina eta oso iraunkorra. Aspaldidanik erabi-lia ekialdean. Bizikletak ere hasi dira egiten. Hemen japoniar estiloko oheetan ikusi ahal izan dugu, gehienetan zuntz moduan.

Beste kasu berezi bat Norvegiakoa, non munduko egurrezko etxe orratzik altuena egi-tekotan dabilzan, 17 pisutakoa. Atzerapau-soa ote?

Egurra, lastoa, buztina, hondarra, karea, harria...naturak ia eginda ematen dizkigun lehengaiak dira eta garapen industrialaren ondorioz sorturiko material modernoek biga-



iosu salegi

Garai batean ‘mirakulutzat’ jotzen zen zementuak etorkizunean ondorio larriak ekarriko dituela dirudi

rrren planu batean utzi izan dituzte. Propagan-da txarra egin izan zaie eta ahulak direla pen-tsatu da. Bitartean, guztien gainetik aspaldi-danik gure inguruetan ikaragarri hedatu den material bat dugu: zementoa. Baina, badiru-di garai batean “mirakulutzat” jotzen zen ma-terial honek etorkizunean ondorio larriak eka-rriko dituela hainbat eta hainbat eraikuntze-tan.

## Etxe zaharrak = Etxe txarrak?

Azpeitia eta herri askotako kontua da alde za-harreko etxeei buruz esan edo pentsatu izan dena: zaharrak eta kaskarrak direla, eta gai-nera egurrezkoak.

Sarritan, interes espelkulatiboak direla medio etxe hauei ez zaie kasurik egin eta az-kenean egoera tristan geratu dira.

Baina ongi zainduz gero, arazo puntualak konponduz eta jarraipen bat eginez, etxe ho-riek zementuzko asko baino iraun-korrako, garbiago eta ekolo-gikoagoak dira. Be-rritu eta oraingo beharretara ere egokitu daitez-ke.

Gainera, etxe berri de-zentek ez dute-na dute: norta-suna.✘



# urrategideko

**"ETXEBELTZ -  
IZARRA"  
ESKAINTZA ETA  
PROMOZIO  
BEREZIAK.**

altzariak & sukaldeak



**círculo**  
muebles

● Sukaldeak

○ Sofak

○ Haurren logelak

○ Armairuak

○ Egongelak

○ Koltxoiak

○ Logelak

○ Bainuak



## 1. SOLAIRUAN GAUDE

ARRETXE KALEA 9 - 1. SOLAIRUA  
20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)  
TEL. 943 85 72 44 · FAX. 943 85 13 14  
[urrategideko@urrategi.eu](mailto:urrategideko@urrategi.eu)  
[www.mueblesurrategi.es](http://www.mueblesurrategi.es)



## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Oharrak euskaraz.

Postariari lanak errazte aldera, etxebizitza-bloke honetako bizilagunek kartel dotorea jarri dute atarian: koloretan eta euskaraz. Bejondeiela! Uztarrria

**BEHERA.** Euskararentzako neurri bakarra.

Euskaraz ere txukun asko josi daiteke arropa bezeroaren neurrira. Dendari honek jarriko ote du kartel berria, euskaraz? Uztarrria\*



Josu Arregi.

## ESANA DAGO

III “Gastuak estaltzeko adina dirua ateratzea da nire asmoa; ez dut gehiago nahi”

JOSU ARREGI *LOPENE* ganadutegia du Zestoan duen baserrian

III “Emakumeak mugitu izanak beste leku baten bila jarri gaitu gizonak”

JOXEAN AGIRRE  
idazlea

III “Kexatu beharrean, pauso bat aurretik joan, eta jendearengana nola iristen segi pentsatu behar genuke”

NAGORE ARANBURU  
antzezlea



kutxa



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

## Azketako uraren bila

**O**rri hutsaren sindromea omen da idazten duenaren gaitzetako bat. Idatzi nahi eta ezin hitzik josi. Oraingo, sindrome horren sintomarik ez dut. Lotsa da nire arazoa. Nor demontreri interesatzen zaio nik idazten dudana? Lotsa kentzeko errezeta: hizki hauen truke Uztarriak ordaintzen didan dirutza.

Ogibide bereko lankideen artean korporatibismoa noskitzat hartu beharreko kontua da. Odol berekoak elkar defendatzen diren bezala ofizio berekoak ere elkar laguntzea zilegi da. Baina kritika ardatz nagusitzat duen lanbidean bestaldera begiratzea ez zait zintz

ztoa iruditzen. Kirolarien kasta desagertzen ari den bezala kazetari kastaren bila ere, laister, hemeroteke eta fonoteketara joan beharko dugu. Gabardina narratx, pattar usai eta eskale itxurako kazetari mitiko haiek enbidia ematen didate. Aire egokitupean, ordenagailua piztu eta “faboritoen” artean aukeratutako komunikabideek diotenaren zain dagoen kazetari titulodunak aldiz, pena. Kazetariak albistearen aitatasuna aldarrikatu behar du, bitartekari huts izateko “copiar y pegar” daukagu.

Kazetariak aitatasuna galdu badu, irakur-

lea, entzulea, ikuslea eduki-irensle bihurtu da. Eman ahala, hartu eta irentsi, dena barrura. Eta nire ustea indartzeko baliagarria bazait, askoz hobe. Hark hala badio hala izango da. Eta ez. Uztarriak diolako ez da nahiko arrazoi, Txetxuk diolako ere ez. Aske izateko Azketakoa bezain garbia den iturri edangarriaren bila joan behar da. Eta kanilak aldatu behar badira, ba, kanilak aldatu.

Orri hutsaren sindromerik ez. Orria beteta eta txapa latza. Nor demontreri interesatuko ote zaio hau guztia? Nik lotsa, zuk auzo lotsa?\*



txetxu urbieta

### IKUSTEKO!



### ▲KONTUZ, LAPURRAK!

Azkenaldian, lapurretak hilero gertatzen dira Azpeitian. Ez, heuren helburua ez da kable elektrikoa ostea, ezta urrezko bitxiak ebastea ere. Beti modu bera erabiltzen dute. Aurpegia ezkutatu gabe, berdina dio egun argitan, bizilagunaren postontzira eskua luzatu eta Uztarría hartzen dute. Jende ona badago, eta batzuek irakurri ondoren buzoian sartzen dute, bueltan. 📞 Herritar bat\*

## URRIKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



donato unanue



### Ekintza armatua bertan behera

**ETA.** Aldi berri bat sortzen ari da euskaldunontzat. Baina zenbaitentzat albistea ez da ETAk armak uzten dituela; ETaren biktimak baizik. Biktimak badirela eta bazirela, lehen ere jakin ondo genekien, eta egi hori eguna joan eta eguna etorri mahai gainean ipintzearekin ETaren erabakia estali nahi izan dute. Gaur ospatu behar duguna, besteak beste, ETAk armak utzi dituela da. Gauza bakoitza, bere garaian.

### Musika banda

**ZORIONAK.** Benetan pozten naiz Azpeitiko banda Sanagustinen kontzertua ematen ikusita. Bazen garaia. Saninazio festetan kontzertua eman zen lekua ikusita (udal-txeko arkupeetan) zinez haserretu nintzen. Errua konpondu dute. Musikak espazioa berarekin du. Zorionak, beraz.



### Sanagustinen kudeaketa

**23 TALDE.** Azpeitian bizi ez garenontzat txundigarria da herrian 23 kultur-talde daudela jakitea. Horiek, Sanagustineko kudeaketaren partaide direla jakiteak poz handiagoa ematen dit. 23 talde horietatik beheratzi musikari daude lotuta; bost zinea, antzerkia, argazki edota iru-

diari; hiru talde dantza munduari; bi arkeologia eta historiari; eta beste lau Interneti, Bertsolaritzari, Ikastolari eta kulturari. Nahi duenak nahi duena esango du, baina kultura horrela sakondu eta hedatzen da: taldeei parte hartuarazi. Demokrazia behetik gora eraikitzen da.✱

## INKESTA

jaiegunetan  
autoak plazatik  
kentzearen alde?

Ainitze Agirrezabala

ELENA IZETA

dendaria



"Alde Zaharreko dendariek kaleak irekitzearen alde egin duten

kanpainaren kontra nago. Egunero eduki beharko lituzkete kaleak itxita. Herriak, komertzioek... denek irabaziko lukete. Lasaia go biziko ginateke".

GLORIA TORRECILLA

herritarra



"Alde Zaharrak oinezkoentzat izan beharko luke beti. Autorik

datorren atzera begira ibili beharrik eduki gabe kalean lasai joatea askoz ere erosoagoa da guztiontzat".

OLATZ GARCIA

dendaria



"Zoragarria da erabakia. Klean lasai ibiltzea gustuko dugu eta badakit jarrera egoista dela, baina dendariek jan egin behar dugu eta astegunetan kaleak irekita izatearen alde nago".

JUAN R. FERNANDEZ

herritarra




"Ondo iruditzen zait Udalak hartutako neurria. Ni gustura ibiltzen naiz oinez, lasai-lasai. Halere, bertan bizi diren herritarreatatik irekita egon behar luke astegunetan".

## Handikeriak

**D**uela hilabete pasatxo, gerra-garaiak itzuli ziren Bilboko Errekalde auzora. Eta hiru egunetako istiluen ondoren gaztetxea eraistea lortu bazuten ere, besteak beste, desalojoak kultur sorkuntza garatzeko beharrezkoak diren azpiegituren gaineko eztabaida denon ahotan jarri zuen. Iñaki Azkunak milaka euro gastatu ditu azken urteotan kultur azpiegiturak eraikitzen. Kulturaren nazioarteko mapa bat egingo balitz Bilbok bere lekua izango luke ziur aski. Baina, Bilboko auzo bateko gazte bati mapa huts bat emanez gero, nekez seinalatuko luke Bilboko Gugenheina bere kultur erreferentzi bezala. Kanpora begira egindako azpiegiturak izan dira, turismoa erakarri nahiean sortutako marka kulturalaren baitan eraikitakoak.

Bilboren erdigunea goitik behera eraberritzen zen bitartean, sekulako inbertsoak, museoak eta eraikinak eginez, periferietako auzoak lehen bezala gelditu dira, ez dute askorik nabaritu Bilboren era-



yuri agirre

berritzea. Eta, hala ere, inori sosik eskatu gabe, behar sozial eta kulturalak asetzeko baliabideak sortu dituzte auzotarrek, Kukulza kasu. Noski, horretarako okupazioa erabili dute, eta hori gaizki omen dago... Argi ikusi da, ordea, auzotarrek ekimen txikiak eta gertukoak eskertzen dituztela.

Azpeitira etorri, oso ezagunak egiten zaizkigu gure herria eskualdean "kultur erreferente" bihurtzeko azpiegitura faraoikoak, ondoren zer erabilpen eman pentsatu gabe eraikitakoak. Dotorezian, Euskalduna jauregiarekin lehiatzeko moduko jauregia inauguratu berri dugu. Handikeriak egiten, bilbotarren pare gaude.

Jatekoa dirutan eskatzen duen piztia eraikita dago, jada hipotekatuta gaude, eta ez dut uste Bilbon bezala zipaioek eskolatutako hondea-makina bat Soreasu eraistera etorriko denik. Gutxienez, etorkizunerako ikasi dezagun gauzak txikitasunetik hasten direla, gugandik, eta gure beharretatik.

galdetzen hasita, Azpeitia mailan  
kanpaina egingo al dute alderdiek  
azaroaren 20ari begira? Uztarria

## Piratak Somalian

**O**raindik orain, begiak irekiarazten dituen horietako dokumental bat ikusi dut Interneten, eta zuk ere ikustea nahi nuke, geure begi itsutuez munduaren etorkizuna ere itsutu ez dezagun. Gusturik baduzu: <http://dotsub.com/view/8446e7d0-e5b4-496a-a6d2-38767e3b520a>

Somaliaren zoritxarra norainokoa den erakusten digu. Baina Somalia gaurko munduaren parabola iruditzen zait. Eta horrela jarraitzen badugu, luzaro baino lehen denok harrapatuko gaituen zoritxarren parabola.

"Afrikako Adarra" lehendik ez zen ziur paradisua izango, baina Europako kolonizatzaileek konkistatu zuten gero, egoera gaiztotu besterik ez zitzaien egin. 1960an lortu zuen Britainia Handiaren independentzia, baina ez askatasuna; lehenengo, etxeko diktadura pairatu zuten, Estatu Batuek babesturik, petrolio-konpainia amerikarren probetxurako. Eta diktadorea eraitsi orduko, gerra zibila gaur



joxe arregi

arte. Anarkiak eta gerrak munduko lurralderik arriskutsuena bihurtu dute Somalia.

Baina hori ere ez da guztien kalterako: bertako kaosaz baliaturik, Estatu Batuetako, Asiako nahiz Europako –Bermeo eta Ondarroako, kasu– arrantzaz ontziek hara jo zuten, lizentziarik gabe edo bandera piratekin, atunetara edo harrapatzen zutenetara, etxeko erreserbak ordurako xahutuak baitzituzten. Eta han piratak azaldu zirenetik, arrantzaz ontziek gerra-ontziak dituzte lagun, estatuen babesean baina gure poltsikotik.


Eta gehiago. Somaliako ur handiak herrialde abertsan eta enpresa handien zabortege bilakatu dira: zabor atomiko eta toxikoen hustuleku. Harantzakoa zaborra eta honantzakoa atuna. Somaliaren tzat, miseria, gosea, heriotza. Begiraleak bidali zituzten Nazio Batuek, eta ikusitakoa garbi asko esan zuten, baina inork ez du ezer egin ezer konpontzeko. Handien negozioari ez komeni. Zein dira piratak?



andoni salegi

Eztakit negue datorrela pirineota  
aldeitie oso idea ona izen dan,  
inbeitun otzakin...

Ta ze inber genun ba?  
Zure nagusiye enteratzema  
bidien dan ume hori nerie dala...  
Pentsatzikin bakarrik otzikerak sartze zatxit.



Jarraituko du...

## Bere umea

**E**gile, autore, sortzaile, edo bultzatzaile, politiko, funtzionario batek egiten du proiektu bat, halako lekutan halako egitekoa, moldatzekoa, jartzekoa. Ordu asko sartzen ditu horretan, bilera asko, izerdi asko, burukomin asko, eta atzerapenak egoten dira, gauzak ez dira nahi bezala ateratzen, dirurik ez da egoten batzuetan, atzerrira joan behar izaten da diru-bila. Bizitzan zehar beste proiektu asko egin ditu, baina hau sentitzen du bere ume.

Halako batean, bukatzen du proiektu hori, inauguratzen da, zoragarria da, eta eskerrak jasotzen ditu egindako lanagatik. Momentu

horretan, proiektua bere izatetik guztiena izatera pasatzen da, eta dagokionak zehazten du bere erabilera. Eta arazoak eta iritzi diferentek hasten dira: gauzak aldatu beharra dago, lurra irristakorra delako, edo paretak irregularrak jarri behar dira akustika hobea izan dadin. Edo urliak gauez itxita nahi luke, sandiak ez du nahi jubilatutak hara sartzerik, berendiak nahiago luke paretak kolore beltzez pintatu. Eskumena duenak erabakitzen du hainbat moldaketa egitea, azken hartzaileentzat, herriarentzat, gizartearentzat misedegarri direlakoan.



||||||| **eñaut frantsesena** |||||

Eta orduan, etortzen da egilea, autorea, sortzailea, edo bultzatzailea, politikaria, funtzionarioa, ez du onartzen bere proiektuan alaketarik, eta epaitegira jotzen du. Hau gertatu zen Bilbon, Calatravaren Zubizurirekin, eta orain herrian gertatu zaigu.

Edonork dauka gustatzen ez zaion zerbaiten kontra epaitegira jotzea. Hori dio legeak, eta onargarria da. Onargarria ez dena da Azkuna izateari utzi, eta Calatravarena egiten hastea. Egia da, Calatravari arrazoia eman zioten epaitegian. Ez, ordea, bilbotarrek.✘



**Uztarriako komunikazio proiektuko bazkide egin zaitezke, eta horrekin, gure proiektu hau zeure ere egin. Oso erraza da.**

izen-abizenak:

helbidea:

enha edo nan zenbakia:

telefonoa:

kontu korrontea:

Perez Arregi 1 behea 20730 Azpeitia  
e-posta: [uztarria@uztarria.com](mailto:uztarria@uztarria.com) • telefonoa: 943150358

**uztarria**  
AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

# Lagun fidela

Txakurra hezi eta artaldea gidatzeko sena du Inaxio Etxeberriak. Euskal Herriko arraza librean aurtengo txapelduna da. 🖋️ Ainitze Agirrezabala



## ◀ IRAGANA.

23 urterekin hartu zuen parte aurrenekoz artzai txakur lehiaketa batean, Ezkio-Itsasoko Gipuzkoako txapelketan. "Mendi puntakoa izanda betidanik oso laguna izan dut txakurra. Osaba Anjel Aranzadi aritzen zen lehiaketetan, baina koinatu bat hil zitzaiola-eta haren lekuan irten nintzen. Osabak utzi zidan artzain-jantzia, eta jantzi onenaren saria eman zidaten. Toni txakurrarekin atera nintzen".

## ▶ ORAINA.

XI. Euskal Herriko arraza libreko txapelduna izan zen Elgoibarko San Migel auzoan, irailaren 24an. Argazkian, Ilargi bilobarekin eta iloba Urkok oparitutako Kimi txakurrarekin, sariak jaso berritan, podiumean.







### ▲► **ENTRENAMENDUAK, KORTZU BASERRIAREN ZELAIETAN.**

Azpeitian bizi bada ere, egunero egiten du bisita bere jaiotetxera, Matxinbentako Korostortzura: "Urtean ez dut egun asko huts egiten. Mendi buelta egiten dut txakurrekin, eta txapelketa dudanean artaldearekin entrenatzen dut. Txakurra jaio eta hiru-lau hilabetera hasten naiz erakusten: *etzan*, *atzera*, *etorri*. Denbora gutxian ikasten dute. Behin aginduak irakatsita, ardiekin lanean hasi aurretik oiloekin egiten ditut probak, txakurkumeari ardia handiegia egiten baitzaio".



### ▲► **LEHIAKETAK**

Arraza librean lehiatzen zuten garai batean, *Border collie*-kin, esaterako, baina "politika hura aldatu, eta euskal txakurarekin lehiatzera behartu gintuzten. Hartutako erabakiarekin ados ez, eta azkenean elkartetik bota gintuzten. Hala, Artxate elkarte sortu genuen, 1998an. 30 bazkide inguru gara". Txapelketez gain, hainbat herritako festetan erakustaldiak egiten ditugu, urtean zehar. Artxate elkartaeri buruzko informazio gehiago: [www.artxate.org](http://www.artxate.org) webgunean edo 675714759 telefono zenbakian. Argazkietan, txakurrek artzainaren aginduetara txapelketetan egin beharreko lanak.





### ▲ **KANPOKO ARTZAINEKIN ERE BAI.**

Ingalaterran izan ziren sei artzain, irailean, hango lehiatzeko modua ezagutzeko asmoz. “Arraza bereko txakurrak dira, baina beste modu batera lehiatzen dute. Gu baino eremu handiagoan aritzen dira, eta txistu egiteko tresna berezi bat erabiltzen dute”. Katalunian, Torroella de Montgrin, txapeldunen arteko txapelketa jokatu da, hilaren 27an, eta Etxeberria ere han izango da.



### ▲ **TXAKURRA, HAZI ETA HEZI.**

Bere aurreneko txakurrarekin, Tonirekin, bost urte egin zituen. Gero, 15 bat urtean lehiaketak utzita egon ondoren, berriro ekin zien txapelketei, Argirekin. Hamar bat urtean Argirekin ibili da eta azken lau urteetako laguna Kimi du. Argik –argazkian- guztira 50 ume erditu zituen: 12ko bi umealdi izan zituen, eta hamaikako, hamarreko eta bosteko bana. 50 txakurrak atera zituen aurrera Etxeberriak: “Gustukoena neuretzako hartu izan dut, eta gainontzekoak saldu”.

# Naturarekin harremanean

Hainbat herritarrek hainbeste miresten zuten lekuan egin dute beren habia: kaletik urrun, inguruko auzoren batean edo baserrian. 📝👁️ Ainitze Agirrezabala

**N**orbere paradisua bilatzeko ahalegin horretan, Azpeitiko kaletik bat baino gehiago joan da bizitzera inguruko auzo txiki edo mendiko baserriren batera. Alabeharrez joan denik ere bada, ordea. Landa eremuak eskaintzen duen lasaitasunagatik baino, kalean etxeek dituzten prezio altuek bultzata, alegia.

Horren harira, hainbat testigantza eta esperientzia jaso ditu Uztarriak.

## ARANTXI LAZKANO ETA ASIER ARANBARRI

||| **Non bizi dira.** Matxinbenta. ||| **Adina.** 44 eta 36 urte. ||| **Lanbidea.** Etxekoandrea eta lorezaina.

### “Alde ederrean bizi gara”

“Betiko ametsa nuen baserri bat erostea, baina etsita, Aranean erosi nuen etxea”, jokatatu du Arantxi Lazkanok. “Aranean bizi arren, nik beti jarraitu nuen baserriak ikusten”, gaineratu du Aranbarrik. “Familia izateko geratu ginen, eta baserriaren kontua alde batera

laga eta umearekin zentratzea erabaki genuen; umea, ordea, jaio eta astebetera hil zen. Kristoren kolpea izan zen, ilusiorik gabe, lurjota geunden eta baserri bila hasi ginen berriz. Inmobiliariako lagun baten eta Zearia-ga baserriko Tomas Seguiolaren bitartez Bil-dotxola ikusi eta gustatu egin zitzaigun. Go-goan dut, Seguiolak nola esaten zidan: ‘baina, nola etorriko haiz ba hona, dena sasiak janda zagok-eta! Hi kaskatuta hago!’. Orain, makina bat alditan esaten dit: ‘eskerrak hartu huen!’. Baserria zaharra zen, baina estruktura ona zuen eta animatu egin ginen. Geure kasa hasi ginen obran. Arantxiren aitak asko lagundu zigun. Oporrak, amatasun baja... denak batera hartu nituen, baserria konpontzeko.

Animalia zalea izan naiz txikitatik, eta baserria animaliz beteta dugu: ardiak, txerriak, txakurrak, konejuak, oiloak, oilaxkoak, baratza ere bai... Umeentzako ere kristoren askatasuna da. Neurri horixe gustatzen zitzaidan eta horixe ari naiz ematen seme-alabei ere”.

Auzo txikietan gertatu ohi den legez, hemen ere badaude gabezia eta behar ba-

tzuk. Bederatzi ume dauden bailaran ondo legoke umeentzako lokal bat edukitzea ipuin batzuekin, telebista eta ordenagailu batekin... astegunean eskolatik bueltan autobusean etortzen direnean denak batera geldialdixoa bat egiteko. Horrez gain, baserri bideak desastre daude. Kuneta zuloak urteetan ez dira garbitu, eta euria egitean urak bidetik irten eta kaminoan kristoren izotz-plakak egiten dira. Horrez gain, baserrian ez dugu telefono finkorik, ezta mugikorarentzako estaldurarik ere. Sukaldean, leiho ondoan, izkina batean, marratxoren bat-edo harrapatzen du, baina deiren bat egin nahi izatera etxetik irten eta zelaian gora igo behar izaten dugu. Garrantia zerbitzuari dagokionean, aitona-amonek ez dute umeen eskolako autobusa erabiltzerik, eta Iraurgin ikasten duten bi anai-arrebek ezin izan dute Karmelo Etxegaraiaren autobusa erabili. Zer kostatzen da-ba eskoletan elkarrekin hitz egin eta akordio batetara heltzea?

Gabeziak gabezi, auzo txiki batek ematen duen patxada ez dago ordaintzerik. Alde ederreko bakean bizi gara hemen”.



Xabier Mujika eta Irati Iturria, Noa semearekin; eta, Arantxi Lazkano eta Asier Aranbarri, Uritz eta Aner seme-alabekin, Arotzenea etxeko terrazan.

## IRATI ITURRIA ETA XABIER MUJIKA

||| **Non bizi dira.** Matxinbenta. ||| **Adina.** 30 eta 31 urte. ||| **Lanbidea.** Bulegaria eta igeltseroa.

### “Asmoa ez zen etortzea”

“Goiko kalean bizi ginen gu, Egaña gozote-giaren aurrean”, dio Xabier Mujikak. “Amak

komentatu zidan inmobiliaria batean ikusi zuela Matxinbentan etxe zahar bat salgai zegoela. Nik asko behar ez berotzeko, Iratiri ere fiskalki komeni zitzaion eta hala hartu genuen, 2006an. Denborarekin berrituko genuela bai, asteburuetan-eta etortzeko, baina gure asmoa ez zen hona bizitzera etortzea. Nigatik bai, baina Iratiren aldetik ez nuen ikusten. Egia esan, berak egin duen esfortzua handia izan da”.

Ezertan hasterako “bi urte pasatu” zirela adierazi du Irati Iturriak. “Xabier igeltseroa denez, lasai-lasai obretan hasi ginen. Gura-soek ere asko lagundu digute. Xabierren aita peoi bezala aritu da, igeltsero; eta nireak elektrizitate lanak egin dizkigu. Hiru bat urte pasatu ditugu berritzen, baina bukatzen gindoazen heinean gero eta ilusio handiagoa genuen eta Matxinbentan bizitzen probatzea erabaki genuen. Apirilean etorri ginen, eta, egia esan, ohitu egiten zara eta gustura. Lursail txiki bat ere hartu genuen baratza egiteko, nahiz eta neuk gehiegi lagundu ez”.

Mujikaren esanetan, “ingurukoek askotan esan ziguten nola joango ginen-ba Matxinbentara bizitzera, erreka zulo honetara etorri izanaz laister damutuko ginela. Nik argi neukan zer nahi nuen, baina ideiak oso garbi ez badauzkazu, asko eragiten du horrek. Auzoan, berriz, oso ondo hartu gaituzte. Beti laguntzeko prest, etxean bezala sentitu gara.

Bestalde, eskatzeko garai txarrak izan arren, auzoan badaude zereginak pixkanaka hobetzeko: beira eta zaborra jasotzeko ontziak baino ez ditugu; etxeetako estolderia behar bezala jartzeko iradokizuna ere bidali nuen Udalera eta proiektua bazegoela esan zidaten. Izan ere, gure hondakin guztiak erre-kara doaz, Nuarben urtegia egonda. Auzoaren sarreran eta irteeran batxeak jartzea ere egokia litzateke, autoak zitsu bizian pasatzen baitira; eta Matxinbentatik urtegiraino bidegorria luzatzea ere ondo legoke. Aurrerago, Independentzia eskatu beharko dugu, udaltxea sortu bertan eta 15M-koek bezala guztion artean erabakiak hartu. Kar, kar, kar!”.

## KRISTINA JUARISTI

||| **Non bizi da.** Urrestilla. ||| **Adina.** 35 urte. ||| **Lanbidea.** Arropa-denda du.

### “Zoriontsu naiz hemen”

“Kalekumea naiz; inoiz baserriarekin loturarik izan gabea. Oso gazte, 19-20 urterekin, Enparan kaleko etxe batera joan nintzen bizitzera, alokairuan. Duela bederatzi urte, ordea, aldaketa baten premia sentitu nuen; mendian bizi eta baratze bat izatearekin egiten nuen amets. Orduan nuen bikotekideak ez zuen kaletik alde egin nahi, eta, beraz, proiektu pertsonala izan zen. Baserri bila hasi nintzen, errentan, Urola bailaran. Bi urte pasatu nituen bila, baina ez nuen ezer aurkitu. Iragar-kiak-eta guzti jarri nituen irratian eta kalean. Jaso nituen deiak; batek basoa saltzeko zuela etabar, baina nik nahi nuen ezer ere ez. ▶

► Errezilen baserri bat alokatzen zutela jakin nuen, tratua egin eta hilerri ondoan dagoen Armendi baserrira joan nintzen bizitzera, duela 9 urte. Geroago, bikotekidea ere nirekin etorri zen bizitzera. Azpeitiko kale-kaletik Errezilgo bailarara bizitzera joatea ate berri bat irekitzea bezala izan zen niretzat. Kristoren paisajea nuen begien aurrean, lasaitasuna, esnatzen zarenetik entzuten dituzun doinuak... Egutegiari begiratu gabe konturatzaren zara zer garaitan bizi zaren, eta baratzea egiteak hori ematen dizu, jaterako orduan ere askoz koherenteagoa egiten zara. Urte guzti haietan, baserrian jende aldaketa egon zen. Gero, errenta dezente altuarekin bakarrik geratu nintzen, lagun asko bizitzera Beizamara joan baitziren. Errezilen pixka bat aparte nengoenez, Aunditira etorri nintzen, duela bost urte. Hemendik ere hainbat jende pasatu da, baina une honetan bakarrik bizi naiz. Oso gustura nago eta ez daukat asmorik hemendik mugitzeko.

Distantziarena eta kotxea hartu beharra inoiz ez zait eragozpena iruditu. Desberdina da egunero Gasteizera lanera joan behar izatea, egiten duzun lanak betetzen ez zaituenean, edo joatea zure espazio horretara, deskonektatzea eta paradisuan egotea. Nik ikusten diodan alde txar bakarra da ez dela batere ekologikoa egunero kotxearekin ibili beharra.

Etxebizitzari dagokionean, nire ametsa da lursail koskor bat duen baserritxo bat erostea, baina sekulako prezioak dituzte. Egia da, askotan ez dela hain garrantzitsua geure jabetzakoa izatea ere. Nik etxe propioa badut Azpeitian. Alokairuan daukat eta handik jasotzen dudanarekin eta zeozer gehiago jarrita baserri hau alokatzen dut. Zoriontsu naiz hemen”.



**Iuba**  
aholkularitza

Aholkularitza  
finan  
laborale  
kontablea

Gestori lanak

Finken administrazioa

Gestio inmobiliarioa

Tlf.: 943 157 525 Faxa: 943 157 278  
Enperan kalea, 45 • Iuba.azpeitibiznet.net

**KIRURI**  
**JATETXE**

Loiola hiribidea, 24

**LOIOLA - AZPEITIA**

Tlfnoa.: 943 81 50 08

Faxa.: 943 15 03 62

arte eta diseinu ikastegia

**di**

**Dibujo eta eskulanak**  
(haurrak) 17:30/19:00

**Pintura** 17:30/19:00

**Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3  
669 414 025 - 943812808  
matrikula urte guztian zabalik

**Koh Tao**

**OSAGARRIAK**

Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)



1. Kristina Juaristi Aunditi baserrian duen baratzen, Kata txakurrarekin. 2. Maite Bereziartua, Aizarna auzoa atzean duela. 3. Xabier Bereziartua *Uiti*-k eta Eneka Lazkanok Solaka baserrian ogi ekologikoa egiteko labea-eta dena jarri dute.

## MAITE BEREZIARTUA

||| **Non bizi da.** Aizarna. ||| **Adina.** 31 urte.

||| **Lanbidea.** Dantza-irakaslea.

### “Kristoren patxada dugu”

“Errebaltarra naiz, azpeitiar petoa eta sekula ez nuen pentsatu izan Azpeititik aterako nintzenik. Mutila leitzarra dut, eta duela lau urte pisu bila hasi ginen Azpeitian, biok lana han baikeneukan, baina pisuek ikaragarri balio zuten. Inmobiliaria batean lana egiten duen lagun batek esan zigun pisu polit bat bazuela Aizarnan. Etxea ikusi eta gustatu zitzaigun, baina esaten genuen: ‘Bai, polita da, baina han dago!’. Inongo loturarik ez genuen guk Aizarnarekin, mutila sekula ailegatu gabe zegoen. Azpeitian pisu gehiago ikusi genituen, baina prezio haietan ezinezkoa zen eta, azkenean, Aizarnan etxea erostera animatu ginen. Egia esan, ingurukoak asko harritu ziren Aizarnan etxea erosi genuela jakin zutenean.

Aizarnara bizitzera etortzerakoan bagenuen halako kezka edo beldur bat, ohituko ote ginen, baina hiru urte dira etorri ginela eta oso gustura gaude. Zenbat egoten gara ba etxean? Bizia esaten dena ez dugu hemen egiten. Eguna lanean pasatzen dugu, eta lotara etortzen gara. Asteburu asko, berriz, Leitzan ezpada, Azpeitian pasatzen ditugu, gu-

rasoen etxean, bestela koadrilakoekin ez gara-eta egoten. Ostiralero, ordea, saiatzen gara Aranburu jatetxera joaten, kafea hartzeko aitzakian aizarnar gazteekin egoteko.

Egia esan, Aizarnan kristoren patxada dugu, ez dago trafikorik, ez semafororik, ez isunik... Etxetik bista ederrak ditugu, Santaengrazi ikusten dugula. Auzo txikietan izaten den *ultramarios* horietako bat ere badugu, ia 24 orduan zabalik. Aurten, 0-2 urte artekoa ez da osatu, baina haur hezkuntza eta lehen hezkuntza arte eskola ere badugu. Noski, hemen lineako autobusik ez dugu eta kotxea hartu behar dugu derrigor.

Nolanahi ere, oraindik ez naiz Aizarnan erroldatu, nik azpeitiarra izaten segitzen dut. Nik oraindik horri eusten diot”.

## ENEKA LAZKANO ETA XABIER ODRIUZOLA

||| **Non bizi dira.** Errezil. ||| **Adina.** 39 eta

41 urte. ||| **Lanbidea.** Euskara-teknikaria eta ogi ekologikoa egiten du.

### “Asmoa, bertatik bizitzea”

“Kalean jaioak gara biak –hasi da kontatzen Lazkano–. Arzubian jarri ginen bizitzen elkarrekin, baina garbi genuen kalean ez genuela bizi nahi. Duela 15 urte baserri bila hasi ginen

Martiritan, Urrestillan... Beti bagenuen zer bait; lekua gustatu ez, kristoren prezioak... Errezilen gustatu zitzaigun bat, Solaka baserria, baina ez zegoen salgai. Hala genbiltzala, Errezilen etxeak egitekoak zirela jakin genuen, eta bilatzen ari ginenera asko arrimatzten zela-eta animatu ginen. Bitarte horretan, Solakako gizona hil eta familiak saltzen jarri zuen baserria. Zaharra zegoen, okertuta eta zati bat erorita; azken 70 urtean ez zen inor bizi izan; ardiak gordetzeko erabili izan zuten. Sarrera botata genuen, etxeak bukatzeaz, baina esan genuen ‘orain edo sekula ez’, eta leporaino jarri eta sartu egin ginen, duela sei urte. Errezilgo etxean hiru-lau urte egin genituen bizitzen, eta hura saldu eta hemen hasi ginen obretan. Gure asmoa baserria berri-tzea zen eta arkitekto bat baino gehiagorekin hitz egin genuen. Imanol Lazkano ere ekarri genuen pixka bat orientatzeko, eta haren laguntzarekin goitik behera eraberritu genuen. Ekaina hasieran etorri ginen bizitzera.

Hasteko, gustatu egin behar zaizu natura, animaliak, mendia... Kontua da zer baloratzen duzun. Bilboko zuloan eguna lanean pasatuta, hona etortzeak indarra ematen dit. Estimatu egiten dut iluntzean eguzkia sartzen edo goizean ateratzen ikustea; baratzean ari-tzea, txakurrekin paseatzea... Etxe inguruan beti dugu zer egina, eta denbora askoz ere errazago pasatzen da. Kalean bizitzeak gehiago bultzatzen zaitu trago bat hartzeko aitzakian, kalera irtetera. Noski, ez zaitu kezkatu behar baserrian bakarrik egoteak ere. Desabantailarik handiena, etxetik kanpo lana eginda, kotxea hartu beharra da”.

Xabier Odriozolak dioenez, “horrelako leku batean bizita, ederrena da ahal den neurrian bertatik bizitzeko modua izatea. Gure asmoa ez zen mendian txalet bat eduki eta gero egu-nero kalera joatea lanera. Baserrira bizitzera etortzeak bizitza aldaketa dakar. Alternatibak aztertu ondoren, ogi ekologikoa egiten hasi gara. Labea egin dugu, ikastaroak ere bai, eta bi lagunek, Bikuñetako Hortelano eta Txubik, ogia egiten erakutsi didate. Momen-tuz, Eneka kanpora joango da lanera.

Jende askok esan izan digu urruti bizi gare-la. Baina, hori ere oso erlatiboa da. Non bizi zaren eta bizimodua non zentratzen duzun, hori da urruti eta gerturen arteko neurria. Nire bizimodua Azpeitian zentratzen badut, dena urruti egingo zait; orain, bizimodua hemen bertan zentratzen badut, dena gertu izango dut. Horregatik diogu, hemen bizita ederrena bertatik bizi ahal izatea dela”.

# Zimel antzik gabe

Erika Olaizolak eta Ane Arenasek ‘Eguzkilogre’ aurkeztuko dute Antzerki Topaketetan, bien artean sortu eta saria irabazita dagoen lana. 📝🎧 Mailo Oiarzabal

**O**inak lur gainean ondo tinkatuta, sormena bor-borka eta ikasteko prest, “ikasi, ikasi eta ikasi”. Iaz “huts egin” ondoren, Erika Olaizolak (Azpeitia, 1989) eta Ane Arenasek (Azpeitia, 1990) elkarrekin sortu eta antzeztzen duten lan bat emango dute, aurten bai, herriko Euskal Antzerki Topaketetan. *Eguzkilogre* da obraren izena eta azaroaren 17an antzeztuko dute, 21:30etik aurrera, Gaztetxean.

Antzerki ‘alternatiboa’-ri eskainitako tarte-an emango dute; saio berean, Urki Muguru-zaren *Munstroa* ikusteko aukera ere izango dute Gaztetxera joaten direnek. Erika Olaizolak gogoratu duen bezala, “iaztik datorren kontua da” Topaketen barruan, eta ohiko eszenatokitik kanpora, formatu txikiko eta ez-konbentzionaleko antzezlanei tarte egitea. Hain zuzen ere, Olaizola eta Arenas dira, no-

labait, aurten bigarren aldiz egingo den saioa tajutzen aritu direnak, Udaleko Kultura bulegotik hala eskatuta. “Iaz egin zen aurreneko aldiz, ostegun batean, ohiko egutegitik pixka bat aldenduta, baita. Eta gazteentzat bai, baina ez bakarrik gazteentzat, denentzat irekita. Baina alternatibo etiketa horrek hori dauka: toki diferentea, Gaztetxea, ostegun bat, eta kafe giroan, pastekin eta”, azaldu dute.

## “Erretzen” dituen...

Topaketen babesean Gaztetxean erneko den *Eguzkilogre* ez da edonolako lorea. Adunako Asvinenea arte eszenikoen laborategian ‘poltsikoko antzerkia’ deritzonari eskainitako lehiaketa garrantzitsua antolatzen dute urtero, eta aurten *Eguzkilogre*-k irabazi du lehiaketa hori; Erika Olaizolak eta Ane Arenasek ira-

bazi dute, askotariko beste ia 30 lanen aurretik sailkatuta. Oso pozik eta harro daude Azpeitiko aktore gazteak, baina badute “barruan arantza bat” ere. Honela kontatzen du Olaizolak: “Azpeitian pixkat horrek erretzen gaitu, ezta? Futboleak, edo beste gauza askotan, baita finalaurrekoetara iristen bazara ere, pisua dauka. Eta hemen, lehiaketa nahiko garrantzitsu bat irabazten duzu, eta ez dauka oihartzunik, inor ez da enteratzen. Ta, jo... Guk sortu dugu lan bat, aurkeztu gara, ia 30 talderi aurrea hartu diegu, ailegatzen zara herrira, eta...”

Eguzkilogre Asvineneako lehiaketara aurkeztu duten hirugarren lana da. Orain dela hiru urte, herriko Emakumeen Antzerki Tailerrean elkar ezagutu ondoren, biek sortutako lan batekin aurkeztu ziren; iaz, berriz, Alaitz Olaizolak idatzitako antzezlana eraman zuten

||| “Lehiaketa nahiko garrantzitsu bat irabazi eta ez dauka oihartzunik, inor ez da enteratzen”

**ERIKA OLAIZOLA**

aktorea



Erika Olaizola.

||| “Gizarte honetako edozein pertsonaren istorioa izan daiteke ‘Eguzkilogre’, jaiotzatik hil arte”

**ANE ARENAS**

aktorea



Ane Arenas.



Adunara, eta aurten sormen propiora itzuli dira, emaitza ezin hobearekin.

### ... eta elkartzen dituen

*Eguzkilo* zer den galdetuta, "gizarte hone-tako edozein pertsonaren istorioa" izan daitekeela erantzuten du Ane Arenasek. "Emakumeengan dago zentratuta, baina edozeinen istorioa izan daiteke, jaiotzen denetik hiltzen den arte". Pixkanaka "lehortzen eta lehortzen" joaten den eguzkiloarearen irudiarekin jokatu dute, kritika eta umorea uz-tartuz.

Asvineneako lehiaketa hiru hilabetez luzatzen da eta ekainean bukatu zuten, lehen saria poltsikoratuz. Uda partean "atsedenaldia" hartu zuten baina, hala ere, Adunatik kanpo aurreneko emanaldia Abaigarreko udalekueetan egin zutela ekarri du gogora Arenasek, "lumigasarekin argiztatuta. Antzerki hau edozein lekutan irten daitekeela uste dut". Urriaren 22an, berriz, kabaret formatuan eman zuten, Pasai Antxon, "Eta orain Azpeitirako gordeta daukagu", dio Erika Olai-zolak.

Askotan emateko asmorik ere ez dute. "Obra handiek espazio bat eta denbora bat betetzeko aukera ematen dizute. Baina ordu laurdeneko hauekin, zeuk joan eta egiteko beste norbaiten laguntza behar duzu, osatzeko baten bat edo zerbait. Txikiak beti hor ka-joian eduki ditzakezu, eta eskatzen dizutene-an atera", azaldu du Arenasek; "hau hiru edo lau aldiz egingo dugu, eta gero igoal beste batekin hasiko gara, eta hura ere gorde egingo dugu... Ez dugu batere saltzen geure antzerkia, egia esan", gaineratu du Olai-zolak.

Donostiako *Taller de Artes Escénicas*-en (TAE) ikasten dute biek, eta antzerkigintzan behar bezalako formazioa jasotzea eta "ikas-tea" dute orain helburu argia, "beti hor" da-goen sormen lana inoiz ahaztu gabe. Topake-tetan, behintzat, lanpetuta ibiliko dira: *Eguzkilo*-z gain, Emakumeen Antzerki Tailerre-koekin *Lost and found* taularatuko dute biek azaroaren 19an. Olai-zolak, gainera, *Lotsa* gabe-n ere hartzen du parte. Zimeltzeko bel-durrik gabe ari dira.✱

**Amenabar**  
DENDA  
gortinak, ohazalak,  
edredoi nordikoak ...  
Eliz-kale, 32-behes - Tel/Fax: 943 15 06 97

**AZKOITIA**  
ERLOJU  
KONPONKETAK  
Arana, 5  
AZPEITIA Tel: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40  
**Ekain**  
Larrialdia: 943 15 16 40  
ALBAITARI KLINIKA

**IRENE ALTUNA**  
LORADENDA  
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87  
www.ialtunadenda.com



### **Euskara Zerbitzua**

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

### **Komunikazio Zerbitzua**

#### **- Diseinua:**

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena

#### **- Komunikazioa:**

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...

haritz etxeberria 'ministro'



josu oiartzabal 'xenpelar'

# Agur

**X**enpelar. Azken bi urteko gertakizunak aztertuz, lehenago edo geroago askok espero bezala Euskadi ta askatasunak agur esan zio borroka armatuari.

**Ministro.** Nik hitz egin dudana azpeitiar eta euskaldun gehienek eskerrik asko batekin erantzun ditek, batzuk hasi dituk frontoi berriko lurra garbitzen, beste batzuk txokora begira zaudek eta lotsatiagoak txokoetatik begira. Badituk batzuk zer jokotan jokatu behar den ulertzen ez dutenak. Baina uste diat euskalduna jokorako prest dagoela.

**Xenpelar.** Pelota eskuetan hartu diagu, eskatu eta eman, frontoi txiki horrela izate huan; pelota utzi edo itzuliz gero eskerrik asko batekin erantzuten genian.

**Ministro.** Ez, uste diat oraingoan pelota eman eta frontoia ere utzi egin dutela. Baina frontoia utzi eta pelota emanez gero ez duk koxkan exeri eta teilatuan zenbat pelota kati-gatuta dauden begira egoteko?

**Xenpelar.** Pelota probatu egin beharko diagu, beroketak eginda zaudek, jokoa "baterazka" duk, bildu gaituk eta esan diagu jokatzeraz gatzela, gogotsu gaudela eta euskaldunoi jokoa gustatu egiten zaigula.

**Ministro.** Bai, gorrien taldea egin diagu, baina orain jokatzeke garaia duk, eta, jokatu, urdinen kontra jokatzen duk frontoian, eta urdinak gu baino hobeak dituk.

**Xenpelar.** Gu baino hobeak? Zer, jokoa hasi aurretik burumakur?

**Ministro.** Niri erakutsi zidatek aurkaria hi baino azkarragoa eta indartsuagoa dela, irabazteko duana baino gehiago eman behar duala, beti dagoela zirrikituren bat, "akilesek ere bazuela taloia" baina *akiles* dela. Horrela ez bada pentsatzen inuxente baten moduan

## MINISTRO/XENPELAR.

"Eskerrik asko gure txapa irakurtzearren. Lasai, hau azkena da. Ondo izan eta maite zaituztegu. Amnistia orain!"

lehenengoan kalera bidaliko hautela. Baina horrek ez dik kentzen jokorako grina.

**Xenpelar.** Baina noiz jokatzen dira partidua? Klean kartelak jarri ditiztek jakiteko? Edo, egunero jokatu behar diagu? Eta, zer jokotan: eskuz, binaka, erremontean?

**Ministro.** Nik uste bakoitzak duela frontoi puska bat, bakoitzak jolas dezala nahi duen jolasean, beti ere pelota errekarra bota gabe.

**Xenpelar.** Harizko pelota sendotu duk, falta zitzaion muina jarritz gero ea saketik zenbatera ateratzen dugun *amaiurrena*. Ni banitxik pelotara eta hi ere etorri adi Mini.

**Ministro/Xenpelar.** Eskerrik asko gure txapa irakurtzearren. Lasai, azkena da. Ondo izan eta maite zaituztegu! Amnistia orain!✱



# Erretiratu

Jubilatuen astea ospatuko du Baigerak, azaroaren 7tik 13ra. Tute, eskoba eta punttu txapelketak, ibilaldiak, hitzaldiak, txokolatada eta bazkaria izango dituzte, besteak beste. 📌 Ainitze Agirrezabala

**E**rretiratuek ekimen ugari antolatu dute azaroaren 7tik 13ra ospatuko duten Jubilatuen Aste-rako. Astelehenetik igandera arte iraungo du Jubilatuen Asteak eta egun horietan guztietan izango dituzte erretiratuek ekimenak.

Hasteko, hilaren 7an, karta-jokoa izango dute, Baigera IIn: Tute txapelketa azkarra (16:30) eta hainbat belaunaldiren arteko eskoba txapelketa (18:00).

Azaroaren 8an, berriz, Edurne Zubiak 'Dependentzi legea eta laguntza ekonomikoak' hitzaldia eskainiko du (Baigera I, 16:30). Esperienzi eskolaren saioa ere izango da hilaren 9an (Baigera I, 16:30), eta 18:00etan, txokolate jana egingo dute bi Baigeretan eta Eguneko Zentroan.

Jubilatuen Astearen baitako  
ekimenen artean, Aginako sagar-

# |||DATUAK|||

**III Zer.** Azpeitiko Jubilatuen  
2011ko astea. **III Eguna.**  
Azaroak 7tik 13ra. **III Tokia.**  
Baigera I eta Baigera II eta  
beste hainbat.

## III Antolatzailea. Baigera Erretiratuen Elkartea eta Azpeitiko Udala.

doteigira joango dira azaroaren 10ean (16:30). Hurrengo egunean, ostiralean, hainbat belaunaldiren arteko mus eta punttu txapelketa azkarrak eta bingoa jokatuko dituzte (Baigera I, 16:00).

Asteari bukaera emateko hila-  
ren 13an Kirurin bazkaria egin eta  
omenduei opariak banatuko zaiz-  
kie. Bi irteeretara autobusak an-  
tolatu dituzte eta txartelak salgai  
daude Baigerako bulegoan.✱

|||JUBILATUEN ASTEA||||||||||||||

**7 egun.** Erretiratuek Jubilatuen Astea antolatu dute azaroaren 7tik 13ra, eta egun horietan guztietan ekimen ugari izango dituzte.

## 12<sup>omendu</sup>.



Jubilatuen Astearen baitan 'Dependentzi legea eta laguntza ekonomikoak' hitzaldia eskainiko dute. **|| HItza**

|||BESTERIK|||

# 1 Emakumeak bertsolaritzan

Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegi izango dira hizlariak, eta emakumeek bertsolaritzan duten papera izango dute hizpide.

||| **Eguna.** Azaroak 8 (asteartea).

|||Ordua. 19:30 |||Tokia.

Emakumeen txokoa.

### III Antolatzailea.

Parekidetasun Saila  
eta Azpeitiko Emakumeen  
Mahaia.

## 2 Bustinzuriko Errebaleko festak

Txistulariek kalejira egingo dute,  
11:00etatik aurrera.

Bazkalondoan, 15:30ean,  
umeentzako jolasak eta  
txokolatada izango da. Ondoren,  
16:30ean, sokamuturra.

### III Eguna. Azaroak 12

(larunbata). |||Tokia.

Bustinzuriko Errebala.

### 3 V. Boulder Txapelketa

Ikus-entzunezkoa eskainiko dute, hilaren 25ean (22:00). Hurrengo egunean, goizean, haurrentzako rokodromoa egongo da eta 11:00etatik aurrera txapelketak jokatuko dira: hasiberrien mailakoa (11:00-13:00), eskalatzaile arituena (15:00-17:00) eta elite mailakoa (18:00), Euskal Herriko eskalatzaile gonbidatuekin.

||| **Eguna.** Azaroak 25 eta 26 (ostirala eta zapatua). ||| **Tokia.** Gaztetxea.

|||Azpeitiko ekimenez informazio  
gehiago: [uztarria.com/agenda](http://uztarria.com/agenda)



# Tuko

Laguntek, S.L.

Harzubia hiribidea 51  
Tel./Fax: 943 15 14 41  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

- ⇒ Helduei egokitutako altzariak
- ⇒ Ebakuntza ondorengorako laguntzak
- ⇒ Suaren aurkako arropak
- ⇒ Ohe artikulatetan aukera zabala
- ⇒ Bainugelarako artikulua  
Aulkiak, heldulekuak...
- ⇒ Gurpil-aulkiak  
Sendoak, biltzen direnak, seguruak, elektrikoak...
- ⇒ Eskaren aurkako materialeak  
Koltxoi eta kuxin hauek babesa eskaintzen dute  
eskarak garatzeko arriskua dutenentzat
- ⇒ Garabiak  
Erabiltzailearen eta zaintzailearen segurtasuna  
eta erosotasuna bermatuz.



Etxean ariketak egiteko  
aparailu bereziak



Masaiak hartzeko eta  
ariketak egiteko aparailuak



Denboraldi berriko  
oinetako erosoak



## SOLUZIOAK

## HITZ GEZIDUNAK

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| R | A | O | J | ● | L | O | Z | T | I | A | ● |
| A | E | S | A | F | ● | I | A | ● | O | I | P |
| E | X | T | E | ● | A | N | A | R | D | ● |   |
| ● | T | R | ● | A | E | R | T | R | A | R | B |
| K | E | U | Z | ● | E | J | A | R | U | Z | ● |
| A | O | K | I | A | L | ● | R | O | T | I | A |
| S | G | ● | O | N | A | R | A | R | ● | G | ● |
| A | N | E | M | A | P | A | I | A | ● |   |   |
| N | E | H | E | L | E | T | S | A |   |   |   |
| ● | B | ● | L | ● | N | ● | U | ● |   |   |   |

## HITZ GURUTZATUAK

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | D | L | A | T | S | U | K | I |   |
| D | ● | I | K | R | A | K | A | Z |   |
| L |   | A | I | R | O | H | ● | N |   |
| A | D | A | R | B | A | E | A | R |   |
| I | L | I | B | ● | U | K | A | R |   |
| R | L | A | R | ● | E | T | A | R |   |
| O | R | ● | E | T | R | A | H | U |   |
| R | O | K | S | U | A | H | ● | A |   |
| E | I | L | E | T | A | S | U | A | H |

## ZEIN DA?



ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Azaroak 18 (ostirala) NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta opari PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ZEIN DEN ADIERAZI.

ZURE IZEN-ABIZENAK

TELEFONO ZENBAKIA

## UZTARRIAREN URRIKO ARGAZKI LEHIAKETA

## ZERDAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



## ELIZAKO DORREA SOBERAN DAGO



## IRABAZLEA



Mari Jose Gorrotxategi Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 132. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Mari Jose Gorrotxategi, saria eskuetan duela.

## ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena  
bertako produktuak eta gutxiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16

Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103

od  
rio  
z  
ola

## Batata

**P**atata gozoaren antza duen tuberkulua da. Lur azpian hazten da eta kono itxurako bere sustraia da bere elementurik printzipalena, guk jaten duguna. Euskal Herrian zailtasunez eta baratze zaintzan asko saiaturik landatu daiteke, baina merkeago erosiko dugu kalean saltzailerik badago. Ameriketatik ekarri zuten duela mende batzuk.

Nire etxean, urte askotan, landare edergarria da. Bihotz erako bere hostoak bi metro luzeetako adarretan agertzen dira. Iragan mendeko 40. hamarkadan, gerra ondorengo gosetea arintzen lagundu zuen. Elikagaien errazionamendu errukigabeak behartu egin zuen jendea landare hau ezagutera eta kontsumitzera. Modu askotara jaten zen, baina gehiena xerra modura ebaki eta ekonomika gainean plantxan erreta. Ez nuen nik ezagutu, baina esaten dutenez, kalean ere saltzen zen erreta, gaztainak bezalaxe.

Hauts eginda ere gorde daiteke eta janariei zaporea emateko erabili. Tuberkulu hau honela osatzen da: %70 ura; %2 proteinak; %20 azukrea; koiperik ia batere ez, %0,5; idorreriaren arazoa konpontzeko lagungarria da oso, %7 zuntza baita. Gainera, 100 gramo batatak 100 kaloria ematen du, olio goilarakada batek edo eztiaren bik adina.\*



||||||| **julian bereziartua** |||||

## XABIER OLAIZOLA 'TXIKERRA' teilatu-egilea



### 1. Teilaturik ederrena?

Loiolako basilikako eraikina.

### 2. Teilatuan bilatutako gauzarik bitxiena?

Errebolber bat eta pistola.

### 3. Materialik onena?

Egurra, goxotasuna du.

### 4. Lanik handiena...

Igartubeiti baserri museoa.

### 5. Teilatuko ikusmira...

Bilbon, elizaren teilatutik, bikote bat larrugorrian oheratzen ikusi genuen...

### 6. Altura horietan...

Kolpe eta puntu asko, baina ezer larrik ez. 3,5 metrotik erori eta ez nuen ezer hautsi.

### 7. Piroporik botatzen?

Geure artean jardun bai, baina esan ez. Kastellanoen kontua da hori.

### 8. Bada esaera bat:

'Etxea teilatutik hasi'.

Genero onenarekin hasi eta teilaturako dirua falta. Teilatu ona da beharrezkoena.\*

📧 Ainitze Agirrezabala

 **lentzeria  
mertzeria**  
jose artetxe, 16

  
**ORKATZ KULTUR ELKARTEA**  
Erdi Kalea, 24 • Tel. 943 15 00 06

 **Aiertza  
Autoak**  
943 811 915 - AZPEITIA  
aiertzaautoak@telefonica.net

**KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK**  
**URBISTONDO  
MARGOAK**  
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

 **AIZPURU AUTOAK**  
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59  
Faxe: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA  
aizpuru@aizpuru.net

 **domusa**

## ||| ELKARRIZKETA DIGITALA ||||| Ibon Guridi (Lan Mobel ISB)

“Euskaraz hitz egiten dugunak Lau gara, eta entrenamenduak gaztelaniaz egiten ditugu”

## ||| Aurtengo urterako zer asmo dituzu?

Jokalaria bezala hobetzen joan, eta minutuak irabaztea. Hobeteko 3ko jaurtiketa dut, batzutan igerileku handi bat jarrita ere ez nuke eta sartuko. Burua ere kontrolatzen ikasi behar dut.

## ||| Kirolaria eta parrandazalea izatea ba al dago?

Horixe baietz, betiere zaituz gero! Ni bezala ibiliz gero, ez dago arazorik kirolaria izateko. Parranda ederra da, baina betiere zaituta.

## ||| Saskibaloiko jokalaria izanda neskatan gehiago egiten?

Kirola egin edo ez egin, neskatan nola egin jakin egin behar da.

## ||| Entrenatzailearen planteamenduak gustatzen?

Bai. Saskibalo partida bakoitzean, orde, planteamendu desberdina egoten da. Planteamenduak bakarrik ez dira nahikoak irabazteko, suertea pixkete eduki egin behar da.

## ||| Zer moduz moldatzen zara ingelesez amerikarrekin?

Mimika eginda bastante komunikatzen naiz. Gainera, amerikartako batek gaztelaniaz badaki eta tradutzeko eskatzen diogu. Pixkanaka, orde, ikasten ari naiz.

## ||| Iraurgik zer postutan bukatuko du? Eta zein igoko da Urrezko LEB ligara?

Ez dugu hasiera ona eduki bi par-

tidak galduta, baina iruditzen zait edozein talderi aurka egiteko taldea dugula. Ea lehen 8 postutan sartzen garen. Urrezko LEB ligara igotzeko faboritoetako bi Ourense eta Andorra dira.

## ||| Nola liteke entrenatzaileak euskara ez jakitea?

Euskara jakin badaki, ulertu oso ondo egiten du, hitz egiten saiatzen da, baina donostiarra izanda gaztelaniaz hitz egiteko ohitura du. Taldean euskaraz hitz egiten dugunak lau gara eta, beraz, entrenamenduak gaztelaniaz egin behar izaten ditugu.

## ||| Zein jokalaria da onena? Aurkaria? Eta, entrenatzailea?

Jokalaririk onena, dudarik gabe, Alfredo Ott amerikarra. Taldeko giroako ere jokalaria bikaina da. Aurkari onena, ez dakit zein esan. Eta izan ditudan entrenatzaile denak bikainak izan dira. Onenik ez dago, denak desberdinak izan dira.✕



## ||| EFEMERIDEAK |||||

1589

**Eskean aritu ahal izateko kriterioa zehaztu.** Parroki sarreraren eskale asko izaten zela kontuan hartuta, erabaki zuten behartsuentzat, elizarentzat eta Vera Cruz eta Sakramentu Santuaren kofradientzat baino ez egotea eskean.

1847

**Independetzia Urrestillarentzat.** Urrestillari herria sortzeko eman zioten aginduen berri adierazi zuten, betiere Elosiaga eta Nuarbe auzoekin bat eginik. Aratz-erreka eta Matxinbenta auzoek, berriz, ordu arte bezala Azpeitiko herriarekin bat eginik jarraituko zutela adierazi zen.

✎ **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.  
*Herria historian zehar* liburua.  
 ||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.  
 ||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.✕

# www.uztarria.com

## azpeitiko ataiye

||| eguneko albisteak ||| irakurleen erantzunak ||| eguneko argazkia ||| bideoak ||| blogak ||| inkesta ||| agenda ||| bitxikeriak ||| 'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... ||| uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai ||| eguneko efemerideak ||| gida komertziala...

||| sartu sarean, eta hartu parte ||| egunero **7.000** orrialderen bisita





**1.** Iñaki Bergara mutil kozkorretan, liburu eskuetan, sei-zazpi urte izango zituen. **2.** 'Ostegun gizena' obra antzezten, Antxieta Antzerki Taldearekin. **3.** Alkartasuna taldearen sorreratik, 30 urte inguruan, atera izan da Bergara danborra jotzen. Argazkian, goiko ilaran ezkerretik aurrea.



# Gizon langilea

Dohain askoko gizona da Iñaki Bergara 'Pio'; apala, egindako lan guztia eginda, oraindik ere ezer egin ez duela dioena. 📌 Uztarria

**I**ñaki Bergara 'Pio'-rena da Uztarria Komunikazio Taldeak 2009ko martxoan abiarazi zuen liburuxka biografikoen bildumako zazpigarren zenbakia. Julian Bereziartua medikuarena izan zen lehena, Leo Etxeberria sindikalista eta euskaltzalearena bigarrena, Valentina Agirre emaginarena hirugarrena, Santi Lazkano txirrindulari ohiarena laugarrena, Amaia Garmendia gitarra eta animalistarena bosgarrena eta Enkarna Arregi moja-rena seigarrena.

Monika Juaristi kazetariak idatzi du biografia eta azaroaren 19an aurkeztuko du Uztarria. Aurrerapen txiki bat da jarraian irakurri dezakezuen.

Iñaki Bergara Izagirre dohain askoko gizona dugu. Alaia eta umoretsua, mundu guztia- ren ahotan irribarre bat markatzen duena. Apala, egindako lan guztia eginda, oraindik ere ezer egin ez duela dioena. Gizon ona, beti ingurukoei laguntzeko prest egon dena. Aita eta senar ona, beti familia zaindu duena. Lagunen laguna, bere lagunak edozeren gainetik zaintzen jakin duena. Ezaugarri guzti horien gainetik, bat markatu dezakegu gehienbat; langilea. Horrela definitzen dute bere inguruko guzti-guztiek.

13urterako lanean hasi zen Iñaki, eta 15 urte bakarrik zituela, Legazpira joan zen lane- ra. Hainbat lantokitan lan asko egin duen arren, azpeitiarrok, batez ere, bere karrera artistikoagatik ezagutzen dugu Bergara.

## Pertsonaia pertsonaiaren atzetik

1995ean, *Goenkale* telesailean *Kaxkurrio* pertsonaia antzezteko aukera emango zion deia jaso zuen azpeitiar aktoreak. Honek, inoiz ez dio lanari ezezkorik eman, eta orduan ere, baiezko erantzuna eman zuen; bere bu- ruari ere, aukera bat emanez. Horrela eman zituen lehen urratsak telebistaren munduan. Guztira hamar urte egin zituen *Kaxkurrio*-ren azalean; 2005 urtera arte, hain zuzen.

2006an, *Balbemendi* saioan Lukas-en lana egiteko aukera eman zioten; eta beste bahin, baiezkoa eman zuen azpeitarrak. Beranduago, 2009an, Asier Altuna eta Telmo Esnalek *Brinkola*-n antzezteko aukera eman zioten. Garai oso onak izan dira hauek Berga- rarentzat, eta oroitzen oso onak gordetzen ditu.

*Euskolegas*-en ere agertu zen Iñaki, baina hau oso paper txikia izan zen. Kapitulu bate- an baino ez baitzen atera.



Udal korporazioan mazolari atera izan da urte askoan. Duela bi urte utzi zuen egiteko hori. Argazkia 1999koa da.

Pantaila handian ere ikusi izan dugu Iñaki Bergara: *Topeka* eta *Ostertz* laburmetraietan egin zuen lan; eta baita *Aupa Etxebeste* film luzean ere.

Pantaila txikian nahiz handian, ibilbide oparoa du Iñaki Pio-k, baina bere ibilbide artistikoa ez zuen telebistan hasi. 25-30 urte inguru zituenean, *Ustegabeko Poza* antzerki obra antzeztu zuen, eta proiektu hari jarraipena emanez, Antxieta Antzerki Taldea sortu zuten. Bergara taldearen sorreratik bertako kidea izan zen, eta 22 urte inguru eman zituen talde horretan, eta guztira, hamalau obratan hartu zuen parte.

Antxieta Antzerki Taldea desegin zenean, Bergarak, hasiera batean, antzezteari utzi zion; baina beranduago, Lakrikun Antzerki Taldeko partaideek taldean sartzea eskatu zioten; eta honek, eskaera hura onartu zuen. Horrela, taldeko kide bat gehiago izatera pasatu zen. Talde honetan, beste bost urtean aritu zen eta lau obra ezberdinetan antzeztu zuen. Lakrikunen zebilela hasi zen lanean *Goenkale* telesailean.

Argi dago Iñakik lan asko egin duela aktore ospetsu izan arte. Baina berarentzat "denbora pasa" modukoa izan da hau. "Oso gustuko" izan du antzeztea eta horregatik ez du inoiz "lan gogor" moduan ikusi aktore ofizioa.

Gainera, lagun asko egin du mundu horretan eta, beti ere, inguruan "giro paregabea" aurkitu duela dio. Antzerki munduan "giro fa-

miliarra" izan dela nagusi dio; bere taldekideek, aldiz, "aita sinboliko modukoa" izan dela. Telebistari dagokionean, "kamerak nolabait teko errespetua" ematen ziola onartzen duen arren, "jende eta giro mundiala" zegoela dio. Telebistako lankideek berarekin "lan egitea oso erraza" dela diote; "plazera" ematen duela berarekin lan egiteak, "oso gizon maitagarria" dela eta.

### Herriarentzat lanean

Azpeitiarrak zerbait benetan bizi badugu, horiek festak dira. Aspalditik, Azpeitiko egutegian festa asko daude markatuta. Iñaki Pio-k festa guztietan hartu izan du parte: Gabonetan, beste hiru lagunekin batera, danborra jotzen ateratzen zen, errege bizperako kabalgatako lehen ilaran. San Sebastianetan ere, 30 urte inguruan atera da danborra jotzen. Eta hori gutxi balitz, haurren danborradan ere aritu izan da, bai karrozak egiten, baita zaldi mutil lanetan ere. Karnabalei dagokionean, Kaldererotan urte askoan atera da Iñaki; eta astelehen karnabala ere inork ez bezala bizi izan du. Amaizteko, San Inazioetako korporazioan ere urte askoan ikusi izan dugu Pio, mazolari modura.

Azpeitiako Musika Bandarekin ere atera izan da. Baten bat behar zutenean, Bergarari deitzen zioten bonboa edota txapak jotzeko. Lagunekin batera txaranga bat ere osatu zuen bere garaian. Karnabaletan edo herriko

gainontzeko festetan kalejiran ateratzen ziren, kaleetan zehar festa giroa jarritz.

Zezenketak ere antolatu izan zituzten garai batean. Zekorketak antolatzen zituzten; korriden berdinak baina zezena hil gabe. Bertan, banderilero lanak egiten zituen Iñakik.

Lan asko egin du Iñaki Pio-k herriarentzat. Oso gizon langilea eta aktiboa izan da beti, eta herriko ekitaldi ezberdin askotan hartu du parte azpeitiarrak. Partehartze horren errekonozimendua egin diote behin baino gehiagotan. 2007an, esaterako, danborradan urte gehiena zeramatzalako omenaldia egin zioten. Bandera jaitsi zuen urte horretan. 2003an, Ohorezko Kofrade izendatu zuten 'Ardozaleak' elkarteak. Urte askoan atera baita Kaldereroekin batera.

### Lanaren errekonozimendua

Bitzita guztian zehar egindako lan guztiaren ordainetan, aurtan, azaroaren 19an, Udalak Antzerki Topaketen barruan eman ohi den Txalo Saria emango dio, Iñaki Bergara azpeitiar aktoreari.

Azpeitiko antzerki amateurrean 25 urtez aritu da aktore lanetan eta guztira hamazazpi obra inguru antzeztu ditu Antxieta Antzerki Taldearekin eta Lakrikun Antzerki Taldearekin. Azpeitiko antzerkigintzako pieza esanguratsuenetarikoa bat dugu aktorea; eta egindako lan guztiagatik ondo merezia du Iñaki Bergara Pio-k sari hau. Zorionak Iñaki!✱

## LIBURUXKA

### DATUAK

**Orrialdeak.** 50.

**Neurriak.** 10 x 8 zentimetro.

**Tirada.** 1.200 ale.

**Prezioa.** 5 euro (Uztariaren bazkideek doan jasoko dute).

### 20. PRODUKTUA

**Aurreko 18 liburuak.** Joxe Takolo, Angel Otaegi, Imanol Elias, Patxi Altuna, Azpeitiko efemerideak, Euskarazko prentsa eta Azpeitia, Azpeitiko mendi gida, Loiolarik ez balitz, Otsobeltz, Urrestillako musika taldeak, Azpeitiarrak Espainiako Gerran, Oroitarri, Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Xanti Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi.

**CDa.** Urolaldeko bertso zaharrak.

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

|                      |          |
|----------------------|----------|
| Udaletxea            | 15 72 00 |
| Udaltzaingoa         | 15 13 13 |
| Suhiltzaileak        | 112      |
| Azpeitia Lantzen     | 15 71 83 |
| Iraurgi Lantzen      | 85 11 00 |
| Nekazal Bulegoa      | 81 24 85 |
| Iturritxiki Ludoteka | 15 11 79 |
| Zapo Txoko / GIB     | 15 71 61 |
| INEM                 | 15 04 02 |
| Kiroldegia           | 81 30 69 |
| Igerilekua           | 81 41 21 |
| Ertzaintza-Azkoitia  | 0837 80  |
| Aitonena I           | 81 51 71 |
| Aitonena II          | 81 23 89 |
| Epaitegia            | 0251 91  |
| Ingurumen Etxea      | 81 24 48 |

### OSASUNA

|                       |          |
|-----------------------|----------|
| Anbulatorioa          | 0254 00  |
| Anbulator. larrialdia | 0254 01  |
| Eguneko zentroa       | 15 74 96 |
| Asepeyo               | 8144 00  |
| Gurutze Gorria        | 85 32 97 |
| DYA-Donostia          | 46 46 22 |

### KOMUNIKABIDEAK

|                               |              |
|-------------------------------|--------------|
| Uztartaria                    | 15 03 58     |
| Hitza (Azpeitia)              | 81 38 41     |
| Hitza (Zarautz)               | 8900 17      |
| Azpeitian Zer?                | 81 11 00     |
| Berria                        | 943 30 40 30 |
| Gara                          | 943 31 69 99 |
| Noticias (berriemailea)       | 687 60 50 06 |
| DV (berriemailea)             | 610 81 29 12 |
| Argia                         | 943 37 15 45 |
| Nabarra                       | 948 22 71 25 |
| Arrate Irratia (berriemailea) | 81 26 32     |
| Loiola Herri Irratia          | 81 44 58     |
| Euskadi Irratia               | 943 01 23 00 |
| Erlo Telebista (Azpeitia)     | 81 53 35     |
| Izarraitz Telebista           | 85 13 05     |
| ETB                           | 943 01 17 05 |

### ALDERDI POLITIKOAK

|     |          |
|-----|----------|
| EAJ | 81 55 70 |
|-----|----------|

## FARMAZIAK (AZAROA)

### EGUNEZ

|                     |                      |                      |
|---------------------|----------------------|----------------------|
| 1-7-12-13-17-24     | 2-3-4-10-22-28-29-30 | 5-6-9-15-18-21-26-27 |
| Alberdi (Azpeitia). | Aranburu (Azpeitia). | Jacome (Azpeitia).   |
| 943 815974          | 943 811350           | 943 080258           |

### GAUEZ

|                            |                      |                  |
|----------------------------|----------------------|------------------|
| 1-5-6-14-15-16-17-18-19-20 | 2-3-4-28-29-30       | 7-11-24          |
| Alberdi (Azpeitia).        | Aranburu (Azpeitia). | Ruiz (Azkoitia). |
| 943 815974                 | 943 811350           | 943 851966       |

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

---ren ??an izango dute  
hitzordua, ??tik ??ra,  
anbulatorioan.

|                           |          |
|---------------------------|----------|
| Hautetsi Independentistak | 15 72 00 |
| EA                        | 81 00 11 |
| EB-Aralar                 | 15 72 00 |

### SINDIKATUAK

|      |          |
|------|----------|
| ELA  | 81 34 46 |
| LAB  | 15 13 56 |
| EHNE | 81 39 28 |

### KULTURA-EUSKARA

|                      |              |
|----------------------|--------------|
| Euskara Patronatoa   | 81 45 18     |
| Udal Euskaltegia     | 81 19 47     |
| AEK                  | 15 10 89     |
| EHE                  | 15 10 89     |
| Udal Liburutegia     | 15 71 95     |
| Loiolako Liburutegia | 8165 08      |
| Kontseilua           | 943 59 12 00 |
| Bai Euskarari        | 902 43 00 26 |

### IKASTETXEAK

|                      |          |
|----------------------|----------|
| Iraurgi              | 81 02 10 |
| Iraurgi (Betharram)  | 81 16 68 |
| Iraurgi (Milagrosa)  | 8163 80  |
| Iraurgi (Jesuitinak) | 81 22 49 |
| Ikasberri            | 15 12 46 |
| Karmelo Etxegarai    | 81 26 97 |
| Urola BHI            | 15 02 28 |

### BESTERIK

|                             |           |
|-----------------------------|-----------|
| UGLE (Urolako gay-lesbian.) | 273 posta |
| Xoxoteko aterpea            | 58 10 07  |

Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak

|  |              |
|--|--------------|
|  | 943 08 06 88 |
|--|--------------|

## ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



## ▲ 'BERTAN' TXARTELA.

Erosketa txartelarekin hainbat abantaila izango dituzte bezeroek. Esaterako, 1.000 puntu lortzen dituzten bezeroek 10 euroko deskontu txartela lortuko dute, dendetan erabili ahal izateko.

## GARRAIOA

|                |              |
|----------------|--------------|
| ALDALUR        | 943 85 27 18 |
| EUSKO TREN     | 902 54 32 10 |
| GUIPUZCOANA    | 943 85 11 59 |
| PESA           | 943 21 26 99 |
| PIPER ELKARTEA | 943 85 25 87 |
| TAXIAK         | 943 81 13 07 |

||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/  
autobusak

|                            |                      |                  |                     |                      |                  |
|----------------------------|----------------------|------------------|---------------------|----------------------|------------------|
| 1-5-6-14-15-16-17-18-19-20 | 2-3-4-28-29-30       | 7-11-24          | 8-9-21-26-27        | 10-22-23             | 12-13-25         |
| Alberdi (Azpeitia).        | Aranburu (Azpeitia). | Ruiz (Azkoitia). | Azpiazu (Azkoitia). | Gisasola (Azkoitia). | Jaen (Azkoitia). |
| 943 815974                 | 943 811350           | 943 851966       | 943 852989          | 943 851235           | 943 850660       |

# OLATZ ARANGUREN

Legazpiko Alaitasuna errondailako kidea

## “mobilizatzen nauen motiboetako bat da musika”

Alaitasuna zabaltzea helburu, 18 urterekin izan zuen errondailarekin lehenengo harremana, Izarraitzen. 📌 Ainitze Agirrezabala

**A**zpeitiar bat Legazpiko errondailan. Nolatan?

Itsasik Izarraitzen emanaldi bat eskaini behar zuela eta hamar minutuz aritzea proposatu ziguten Julian Armendarizi eta bioi. Legazpira eraman ninduen bere taldea ezagutzera. Hura izan zen nire lehen harremana errondailarekin, 18 urterekin. Asko hunkitu ninduen.

**Noiz hasi zinen gitarra jotzen?**

10 urterekin ekarri zidaten nire lehen gitarra, erregeek. 14 urte nituela miseriakordian eta Esklabetan errondailak zeuden, eta elizako kantak jotzen genituen. Gero utzi egin nuen, errondailan hasi nintzen arte. Mobilizatzen nauen motiboetako bat da musika.

**Nolako emanaldia eskaintzen duzue?**

Egoeraren arabera. Kilometroak, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez... bada euskal kantak. Baina kanta hegoamerikarrentzat ere zaletasun handia dago. *Su cielito lindo* abesten duzu kalean eta estribiloa denek kantatzen dute. Jendeak bat egiten du.

**Herriz herri aritzen al zarete?**

Guk ez dugu propagandarik egin jendeak ezagutzeko. Internet bidez harremanetan

jarri eta Kanarietako errondaila batekin elkartrukeak egin ditugu. Ordiziako errondailarekin eta Tolosa Kantarirekin ere bai. Legazpiko Udalarekin akordio bat dugu: urtean bost konpromiso ditugu eta emanaldiko diru-laguntza ematen digu. Saninazioetan Azpeitian izan ginen, uztailan Azkoitian...

**Asko hunkitu zaituen emanaldi bat...**

Nafarroa Oinezen, duela hiru urte. Frontoian 800 lagunentzako paella-jana zegoen eta gu harmailetan abesten. Ikustea mahaika haiek denak zu kantatzen ari zarena kantatzen, hunkigarria da. Azpeitian, esaterako, ez du harrera beroa. Errondaila Espainaiako zerbaitekin lotzen da, Tuna bat dela pentsatzen du jendeak eta guk tunatik ez dugu ezer. Ezagutzea da kontua. Errondailaren izenak dioen moduan, alaitasuna transmititzea da premisa nagusia. Musika terapia ikaragarria da.

**Etxean ba al dute musikarako zaletasunik?**

Alaba gitarrista polita dela esango nuke. Seme-alabak harrapatu izan ditut elkarrekin gitarra jotzen. Familiako ospakizun guztietara eramaten dugu gitarra.\*



1

1. Aranguren. 2. Legazpiko errondaila, Araba Euskaraz. 24 kide dira, haietatik hiru emakumeak. 3. Armendariz –legazpiarra, Azpeitian bizi da eta bandurria jotzen du– eta Aranguren. Abesteaz gain, gitarra klasikoa eta elektrikoa, txarangoa, tam-tama, trikitia eta bandurria jotzen dituzte.



2



3

# antonio loinaz, gogoan

# B

adakit azpeitiarra zinela, baina gogoan daukat esan zenidala garai batean batetik bestera ibili zinetela...

—Bai, Eliz kalean jaio nintzen, 1. zenbakian, 4. pisuan. Ez naiz oraingoa, 1916ko ekainaren 6an etorri nintzen mundura! Bi anai-arreba nituen ordurako. Gero, zortzi izango ginen denera. Parrokian bataiatu ninduten. Osaba-izebak izan nituen aita-amapontekoak, Joxe Antonio Campos, Ttamtto, pilotari ezaguna garai hartan, eta Katalina Gaskue, Goiko Errotako etxekoandrea. Bi urte nituela, Zumaiara joan ginen bizitzera, barkuak egiten lan egin zuen-eta gure aitak. Ondoren, Medina Pomarren (Burgos) bizi izan ginen, pedalharmonioak egiten. Han jaio zitzaidan beste arreba, Karmen... 1923an itzuli ginen Azpeitira, eta, hemen, Luis jaio zen.

—Gogoan daukat eskolan zirti-zartaka erabiltzen zintuztela...

—Etxeko egoera ez zen erraza, eta eskola publikoan hasi nintzen. Timoteo Gomez genuen maisu. Haren laguntzaile, Karlos Mendiola. Honek, hartu korrea bat eta jotzen gintuen... Gero, karameluak ematen zizkigun, guk etxean ezer ez esateko. Akordutzen naiz eskola hartako ume guztiak joan ginela Urolako trena inauguratu zutenean, 1926ko otsailaren 22a zen. Banderatxo espainolak jarri zizkiguten eskuan eta gu hantxe, haiek astintzen jardun genuen. Alfontso XIII.a etorri zen, eta sekulako festa izan zen hura. Bi azpeitiarrek bultzatu zuten obra hura: Julian Elortza zena, Diputazioko presidentea garai hartan, eta Ignazio Perez Arregi, diputatua. Bederatzi urte nituen nik orduan...

—Gogoan daukat Agirreneko altzari fabrika lan egin zenuela...

—Hamahiru urte nituela tallista hasi nintzen. Gero, ebanista ikasten hasi nintzen, lanean, Agirrenean. Nik organogile izan nahi nuen, eta, horretarako, onena altzari fabrika hartan lan egiten hastea iruditu zitzaidan. Behin, Apategineko etxean bizi ginela, ni gai-



|||||||miel a. elustondo|||||

|||Banderatxo espainolak jarri zizkiguten eskuan eta gu hantxe, haiek astintzen jardun genuen

xorik eta etxean, eta leihotik begira, Primo Rivera ikusi nuen organisterian sartzen. Diktadura garaian, gobernuko buru egin zuen hark.

—Gogoan daukat esaldia: “Loinaz, atzetik eman zeabek!”...

—Gerran ginen, Otxandio eta Legutioko frentean. 1936ko azaroaren 30ean hasi ginen han, erasoan. Ondorio txarrak izan gintuen. Egunsentian, erasoari hasi orduko hil ziguten kapitaina, Isidro Andonegi. Franco-ren aldekoek metrailadorea jarri zuten Legutioko parrokiako kanpandorrean eta handik tiroka egundoko txikizioa egin ziguten. Euri-tan eman genuen gaua, oso txarki. Hantxe hil zuten ondoan neukan beste azpeitiarra, Joxe Urbietia, Mandiolatza. Hark esan zidan, jo zutenean: “Loinaz, atzetik eman zeabek!”. Lehortzen den bala horietakoa zen. Sartzerakoan, zulo txikia, baina, irtetzerakoan, egundoko zulokotea. Arropa erantzi genion, eta zulokotea gerrian. Erizainek eraman zuten, baina segituan hil zen.

—Gogoan daukat...✱



Xanti.R

iberotarren plaza 4 behea  
20730 azpeitia gipuzkoa  
t. 943 81 44 50  
f. 943 81 50 52

**‘zure irribarra zaintzen dugu’**

[www.grupohorzkari.com](http://www.grupohorzkari.com)

 **i**raye  
Kafetegia  
Hartzubia, 4. • Tel.: 943 157410

*lora-etxea . . .*  
  
**Kimubat**   
**ASTE BUKAERAN IREKIA**  
Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 [www.kimubat.com](http://www.kimubat.com)

**Eraiki zubia  
EUSKAL HERRIARI**



**bozkatu**




[www.amaiur.info](http://www.amaiur.info)

gero  
**NEGAR EGITEA**  
**ALFERRIK**  
da



Kopiak online zerbitzuarekin,  
zure fitxategi gogokoenak  
babesturik



Santi Lazkano Kirolak



udazkena-negua 2011-2012

